



Mikel Sarasola eta Noa Goikoetxea Amara Berriko Superxagu jaien antolatzaile taldeko bi kide . MAITANE ALDANONDO

Udazkenari ongietorria emango diote Amara Berriko Superxagu jaiek

Orain bai, auzoetako udako jai herrikoak amaitzeaz dira. Festazaleek azken bi geltokiak dituzte datozen asteari begira: Martutene eta Amara Berri. Azken horretan, ia dena prest dute jarduera ugarirekin etorriko den Super Xaguri ongietorria egiteko.

Maitane Aldanondo Gabilondo

Jaiak egiteko baimenik ematen ez zietela eta, Turismo bulegoaren –CAT gaztelaniaz– aurrean, Super Xaguren iruditegia sortu zuen mende hasieran Amara Berriko jai batzordeak. Urtez urte errotzen joan dira, eta gero eta gehiago dira parte hartzen duten auzotarrak. Jai batzordeko kide Noa Goikoetxeak eta Mikel Sarasolak gogoratu dute ezagutu zituztenezan «gertuagokoak edo txikiagoak» zirela,

baina azken hamarkadan «bestelako dimentsio bat» hartu dutela, bereziki, pandemia ondoren. «Agian ez gara Donostiako beste jai batzuen modukoak, Kaiko karmenak, esaterako; baina bagara nolabaiteko erreferentzia, eta horretan lan egiten dugu ere jendea animatzeko», aitortu du Goikoetxeak.

Hiru oinarri dituzte: feminismoa, auzoa eta euskara. «Hortik saiatzen

gara jaiak eraikitzen eta horren baitan lanketak egiten auzoari begira», zehaztu du Goikoetxeak. Apirila bueltan ekiten diete festei lotutako bilerei, baina Aste Nagusia igaro arte prestaketek ez dute abiada hartzen. Izan ere, tartean, bestelako jarduerak ere antolatzen dituzte kanpora begira edota euren arteko harremanean sakontzeko. Hamabost bat kideko taldea da, azken urteetan «asko berritu» dena kideen esanetan, eta inguruan badituzte beste zenbait eskukaldia emateko.

Bi jarduera ikur

Bereizgarri ez badira ere, badituzte bi ekimen berezi, auzoetako beste jaietan topatzen ez direnak: IV. Nazioarteko Harri-Orrri-Ar txapelketa eta NAN jaurtiketa. Larunbat gauean aurrera eramango dituzte biak. Azken hori urriaren 12aren bueltan egiten dute; «jai egun arrotz hori» ospatu nahi ez dutenez, festa kutsua duen aldarrikapena egiteko modu bat da. Hainbat jarduera egin izan dituzte data horretan, azkena

eta arrakasta gehien izan duena, NAN jaurtiketarena izan da.

Urteroko apustua dute haurrentzako eta, orokorrean, auzoko familientzako «bestelako eskaintza» bat sortzea; aurten, gainera, haiekin batera prestatu dute. Iaz, TXIKIsorpresak «arrakasta handia» izan zuen eta aurten ere egingo dute, ostiralera aurreratuta. Berrikuntzen artean, adin guztietako lagunei begira, zirku tailerra egingo dute igandean. Azaldu dutenez, Super Xaguk «gaitasun handia du» umeengana iristeko eta bai Katalin Erauso bai Amara Berri ikastetxeetako ikasleekin lanketa egiten dute. Eurak izango dira, beste behin, aniztasunari eta euskarari lotutako horma irudiaren egileak, astelehenean eta asteartean.

Jende gehien erakartzen duten jarduerak zeintzuk diren galdetuta hirutan ados daude bi gazteak: danborrada, paella lehiaketa eta herri bazkaria. «Danborrada da dimentsioz handitzen joan den jarduera nabarmenena. Urtero danborrik eta barrilik gabe gelditzen gara». Ez da broma, 100-110 bat lagun bueltan batzen dira makilei eraginez burrunba sortzeko. Paella lehiaketan, aldiz, 25 paella da muga, bakoitza prestatzen dabilzan partaideen kopurua aldakorra izanik. Haiek prestatutakoa dastatzeko 200-250 bat pertsona elkartzeko dira herri bazkarian. Eta ez jateko soilik, postrea ere ekartzen dute. «Animatzen denak ekartzen du bizkotxo, urtero dezente ditugu». ●



ASTELEHENA 6

09:00

Mural herrikoiairen margotzea.

ASTEARTEA 7

09:00

Mural herrikoiairen margotzea.

OSTEGUNA 9

16:00

Muntaketa herrikoia jai gunean.

OSTIRALA 10

17:00

TXIKIsorpresa! Olaeta plazan.

18:00

- Muralaren inaugurazioa eta kalejira.
- Erraldoiak.

18:45

TxupiNazioa, jai gunean.

19:00

Danborrada herrikoia.

20:30

Afariak, jai gunean.



PINTURA · PAPER MARGOTUAK
EGURRA BABESTKO PRODUKTUAK
LURRAK · BINILOAK · DEKORAZIOA
ALFONBRA ETA MOKETAK



Aupa Superxagu!

ZURE PINTURA DENDA

BENTA BERRI Jose Goikoa Z/G - 943 15 55 79

GROS Secundino Esnaola, 19 - 943 28 26 11

AMARA Eustasio Amilibia, 11 - 943 45 67 04

HERNANI Akarregi Poligonoa, Pab.3A - 943 52 16 50



23:00

Kontzertua: Zatekeen erromeria.

LARUNBATA 11

11:30

Paella lehiaketa, Armeria plazan.

12:00

Gazteek antolatutako jolas herrikoiak eta haur txikientzako jolasak, Armeria plazan.

13:00

Bertso saioa, jai gunean.

13:30

Haurren bazkaria.

14:30

Bazkari herrikoia: txartelak Arkupe eta Ilunki tabernetan.

Mahai-jolasak eta bitxi txokoa.

16:00

Bingo musikatua.

16:30

Haurtxokoa eta Gaztelekua jaietan! Olaeta plazan.

18:30

Hamarru elektrotaranga.

20:30

Afariak, jai gunean.

22:30

IV. Nazioarteko Harri-Orri-Ar txapelketaren finala.

22:45

Kontzertua:
Marte Lasarte.

00:00

NAN jaurtiketa.

00:30

Kontzertua: Ofensa eta TurKa.

IGANDEA 12

12:30

Plaza dantzak, tortilla txapelketa eta sagardo barrika, jai gunean.

14:00

Parrillada.

16:00

Mus eta partxis lehiaketa.

17:00

Bazkaloste girotua: Zirku tailerra.

19:00

Super Xaguri agurra, jai gunetik abiatuta.

19:30

Desmuntatzea herrikoia, jai gunean.

XANTI
J A T E T X E A

Ondo pasa jaietan!



Anoeta Pasealekua, 30, 20014 Donostia



xantijatetxea@gmail.com



943-45 74 36